LEHEN MAILAKO ATENTZIOARI BURUZKO IHARDUNALDIAK

GOTZON ZULUETA
(Medikua. Drogomenpekotasunaren
Prebentziorako Teknikaria)

SARRERA

Drogamenpekotasunen agerraldia giza fenomeno bezala gure gizartean hirurogeita hamargarren hamarkadaren azkeneko urteetan koka daiteke.

Erantzukizun osoa substantziari leporatzen zitzaiolarik, sorospen eta onbideratzeko goitik beherako sistema garatu zen.

Urteak aurrera joan ahala espero ziren baino emaitza eskasagoak lortu dira, osasunketaren erantzuna ezinbestekoa izan arren, bera bakarrik aski ez dela adieraziz.

Hala ere, drogamenpekotasuna osasun-arloko beste edozein kasu bezala hartu behar bagenu ere, ukaezina da gizarte-mailan duen eragina eta zalaparta. Ez dugu honen arrazoietan sakonduko.

Gure iritziz osasunarekin zerikusia duen portaera den neurrian bizimoduen eremu zabalean sartuko dugu eta horregatik, alor honetako Prebentzioak informazio hutsa gainditu beharko luke bizimodu osasuntsuen eragintzaren alde apustua eginez.

Ohartu behar dugu balore, jarrera, jokaera eta portaeraz ari garela eta hauen moldaketa-aldaketarako prozesuak epe luzekoak izaten direla.

Honetarako nahitanahiezko baldintza eta prebentziorako tresna baliotsuena parte-hartzea dugu, bizimoduen aldaketek sektore guztien inplikazioa eskatzen baitute: erakunde, profesional eta ekimen sozialarena alegia.

DROGAMENPEKOTASUN - PREBENTZIOAZ

Drogamenpekotasuna, zergatia askoko giza fenomenoa dela onarriturik, interbentzioek bi mailatatik eragingo lukete:

- **Eskaintzari aurre egiteko**

Hemen kontrola edo salerosketaren errepresioa izango litzateke ardatz nagusia, legeztapenerako lehenengo urratsak emateke daude oraindik eta.

- **Eskaria gutxitzeko**

Kasu honetan sorospenerako sareaz, gizarteratzeaz eta prebentzioaz arituko ginen, baina bereziki komunitate-prebentzioari buruz luzatuko gara.

Drogamenpekotasunei aurre egiteko Komunitate-Prebentzioa planteatzen denean, ez dela interbentzio berria ezta ere teknika ezberdina aitortu behar da.

Estrategia honekin, prebentzio-esparru ezberdinetan erabilitako teknika guztiak batuz, koherentzia eta efikazia eman nahi zaio interbentzioari.

Gure kasuan, drogamenpekotasunetan alegia, parte-hartzea nolabait da helburu, fenomeno honen kontrako efikazia, populazioak arazoa bereganatzeko duen mailan datza eta.

Hala ere, eta Administrazioari dagokionez, ez dio Komunitate-Prebentzioak ardura gutxituko zeren estrategia honek dituen ezaugarrien artean politika orokorra eta osasunaren kontzeptua baitaude, erakunde eta esparruen artekotasunerako bideak oso garrantzitsutzat jotzen direlarik.

Zentzu honetan, 1988. urteak garrantzi handikoa dirudi, drogaren kontrako aurretiko planteamenduak nolabait aldatzen direlako.

Alde batetik oinarri legala emanez, Estatuko Drogamenpekotasunari buruzko lehenengo Legea onesten da Euskal Parlamentuan. Bestalde, Udalen eta Jaurlaritzaren arteko hitzarmenen bitartez baliabide teknikoak diren Prebentziorako Teknikari-taldeak eratzen dira.

Estrategia honen xede zuzena herria da. Udalerria, interbentziorako lehen mailako arloa bezala aukeratzen da: biztanlegoarengandik hurbilen dagoelako eta biztanleen bizimoduak eta baldintzak hoberen ezagutzen dituelako.

Ekimen honekin gizartearen konpromisua lortu nahi da norbanakakoaren erantzukizuna ahaztu gabe. Horretarako antolakuntza bi mailatan planteatzen da:

- **Teknikari-taldeak.** Udal edo mankomunitatetan eratuak direnak eta prebentziorako programak bultzatzea dutelarik helburu.

- **Prebentziorako Udal Batzordea**. Gizartearen partaidetzarako eta esparru guztien ahaleginez, lan egiteko bilgunea. Hezkuntzaz, Ongizateaz, Osasunaz edota Gizarte-mailan zerikusia duten ordezkari politikoak zein elkarteetakoak hantxe bilduko ziren

PARTE-HARTZEAK LEGEAN

Drogamenpekotasunari buruzko Legeak (1988ko azaroa) baditu bere ataletan Komunitate partaidetzarako aipamen batzuk, III. Izenburuan "Antolakuntzaz eta gizartearen eskuhartzeaz" aritzen denean.

Hor ikus daitezke Euskal Autonomi Elkartearen mailan zeintzuk izango ziren Sailen Arteko Batzordea (34. atala) edo Aholkularitza-Batzordea (35. atala).

Gauza bera esan genezake 37. eta hurrengo ataletan gizartearen ekimena, boluntarioak edo irabazte-xederik gabeko erakundeaz tratatzen duenean.

Udal eremuari dagokio, Legea ohartemandako ekintzapideen norabidetik koordinazioa eta gizarte ekimena, udalak berak bultzatu beharko luke.

Drogamenpekotasuneko Udal Batzordeari buruz ez da aipamen txiki bat ere egiten, Udal bakoitzaren antolakidetzari erantzukizuna uzten zaiolarik.

Antzeko esperientziak ezagunak zitzaizkigun 1983ko Osakidetzaren Legean edo aurretik Gizarte Zerbitzuetako Legean (1982) non partaidetzarako kontseiluak arautzen ziren, nahiz eta gero praktikan garatu direnak oso gutxi izan.

KOMUNITATEAREN PARTE-HARTZEAZ HAINBAT GALDERA

Beharbada honekin guztiarekin jarraitu baino lehen zer ulertzen dugun Komunitateaz eta Parte-hartzeaz argitu beharko genuke.

Gutxienezko adostasuna dagoelakoan azter ditzagun bada parte-hartzeari buruz lagungarri izan dakizkiguken galderak, hain zuzen ere:

- Zergatik komunitatearen parte-hartzea? Beharrezkoa al da?
- Parte-hartzea zertarako? (Helburua)
- Nortzuk dira partaideak eta honen zeregina?
- Partaidetzarako metodologia: ba ote dago? Zeintzuk izango lirateke honen bide arruntak?
- eta abar luze bat, hamar minututan harrapatu ezina.

Zergatik?

Prebentzioaz edo osasun-eragintzaz aritzen garenean nahiko normaltzat jotzen da parte-hartzeaz aritzea ere.

Lehenengo eta behin osasun-eragintzak, komunitate eta norbanakakoaren osasuna kontrolatzeko pertsonen gaitasuna eta prestakuntza exigitzen du.

Bigarrenez, norbanakakoak pertsona bezala bere osasuna gestionatzeko duen eskubidea eta ondorioz honek dakarzkion erantzukizun sozialak.

Azkenik, ez garelako gaixotasun kutsakorrez ari, pertsonak osasunarekiko dituen bizimoduez baizik, eta horien moldaketak (moldatu behar baldin badira) aktore guztien erabakia eta konpromisua eskatzen du eta ez bakarrik zerbitzuena.

Zertarako?

Osasunarekiko eredu kritiko eta aurreratu batek komunitatearen parte-hartzearen onartzea suposatu beharko luke.

Printzipioz, osasun-eragintzarako lagungarri izan litekeelako ahal da izan helbururik onartuena. Xede honetan behintzat badago adostasuna.

Baina ez du horretan bakarrik, printzipioetan alegia, gelditu behar, zeren parte-hartzea edozein komunitate-ihardueran ezinbesteko eta derrigorrezko baldintza tekniko bihurtu baita. Nola alda daitezke bestela osasunarekiko jendeak duen kultura, jarrera, eta portaerak inplikatutakoaren erdia kontuan hartu gabe?

Nortzuk?

Gehientsuenetan komunitatearen parte-hartzean inplikaturik dauden aktoreak hiru mailatan banatzen ditugu:

- Erakundeak (maila politikoa)
- Profesionalak (maila teknikoa)
- Giza kolektiboak (gizarte-maila).

Hortxe ere adostasuna badagoela esan genezake.

Zailtasunak, osasunari dagozkion lehentasunak markatzeko momentuan sor daitezke, partaide ezberdinen interesen gatazka dela medio.

Osasuna ulertzeko dituzten era ezberdinak; "benetako" osasun-beharrizanak zeintzuk diren; zein gairi eman premiatasuna edo zeini ez; nola aurre egin eta zein baliabiderekin, e.a., izango lirateke inplikatutako arlo hauen arteko lankidetzarako zailtasunak.

Partaide bakoitzak duen jokabideak badu zerikusi garrantzitsua, bai antolakuntzan eta baita lanerako metodologian ere, zeren oso ezberdinak baitira arlo bakoitzeko espektatibak, motibazioak, eskaerak edota proposatutako irtenbideak.

Metodologia eta bideak

Lehenbailehen azpimarratu behar da komunitatearen ihardueretan ez dagoela interbentziorako inolako formula magikorik, are gutxiago metodologia zehatzik.

Oro har ikusirik, ingurugiro ezberdinen ezaugarriek (hirikoa ala baserrikoa den) eta duten herri-antolakuntzaren mailak egoera ezberdinak adierazten dituzte.

Esaterako, gaur hemen erabilitako eta baliagarria izan zaigun antolakuntza, ezegokia eta porrotera abiatzen gaituen metodoa bihur daiteke kontestu ezberdinean.

Horrexegatik, nola nahi ere, dauden bideak aprobetxatu behar dira, euron egokitasuna eta baliagarritasuna ondo neurtuz.

Ildo honetatik osasunarekiko ekimenak bultzatzeko eta bideratzeko, berdin behar izango genituzke bai Osasun edo Gizarte-Ongizateko Kontseilua bai drogamenpekotasuneko Udal Batzordea.

Azken finean, antolakuntza-mota batek ordezkatuta dauden talde-elkarte ezberdinen arteko harremanak eta funtzioak adierazten dituzte eta.

LANKIDETZARAKO ZAILTASUN BATZUK

Komunitate-eremuko iharduerarako begien aurrean oinarrizko eskema hauxe eduki behar da, hots:

- KOMUNITATEAN aritzea
  - KOMUNITATEARENTZAT ihardutea
    - KOMUNITATEAREKIN lankidetzan.

Teorikoki logika guztiaz horniturik dagoela dirudiena gero praktikan, egunerokotasunean, ez da hain erraz gertatzen, drogamenpekotasunaren arloko interbentzioak, gure ikuspuntutik, zenbait zailtasun sortzen baititu.

Irtenbideak bilatu nahirik jarraian aztertzen dira hauetariko batzuk:

*** Gizarte-mugimenduen atzerakada**

Historiari errepaso laburra eginez aise konturatzen da elkarteratzearen egoera nola aldatu den azken hamabost urteotan.

Aurredemokraziaren garaiko herriaren parte-hartze zuzenetik (famili elkarteetan esaterako), erakundeetan parte hartzera jo du, motibazio zuzena erabat jaitsiz parte-hartze ez-zuzena edo alderatuta igo ahala.

*** Erantzukizunen Alderatzea**

Arestian esandakoaren ondorio zuzena dugu hau.

Konstituzio garaiko urte hauek moldatu egin dituzte jendeak komunitate-arazoei ematen dizkien erantzun sozialak.

Sarritan ikusten dira teknikoen edota profesionalen eskuetan norbanakakoari, komunitate baten partaidea den neurrian, dagozkion ardurak.

*** Sistemarekiko Mesfidantza**

Honekin guztiarekin, eta batez ere, drogekiko arazoetan argi ikusten da behin baino gehiagotan, sistemak berak duen jarrera kontraesankorra egiten duenarekin egin daitekeeneraino.

Adierazgarri ditugu narkotrafikoaren sare handiak, tabako eta alkoholaren ekoizpenan Estatuak duen inplikazioa. Baita ere droga-arazoengatik gatazkatsuen diren auzoetan baztertze sozialarekin ematen diren loturak. Komunikabideetan zilegi ez den publizitatean sartu gabe.

*** Baliabideak gehitzea**

Behin eta berriz errepikatu behar da drogamenpekotasunen prebentzioan lehena eta garrantzitsuena den baliabidea komunitatea bera dela: Komunitatea eta bere partaidetza.

Ez gatoz bat xederik gabeko baliabiden ugaltzea prebentziorako baldintza nahikoa dela esaten denean.

Ez dugu uste polikiroldegiekin, aisia eta denbora libreko ekintzekin edo gazteei zuzendutako kanpainekin bakarrik prebentzioa egiten dugunik.

Beste esparruetako ekintzekin batera, gazte-plangintza orokorrean, eta sakabanatutako ihardueretan erori gabe. Hortik jo beharko genuke.

*** Parte hartzearen kontzeptuak**

Partehartzeak, prozesuan inplikatutako kolektibo guztiak lankidetzan aritzea esan nahi du.

Aktorek prozesuko une guztietan hartuko lukete parte, diagnostikotik hasita ebaluazioraino, berdintasun-jarrera batez.

Komunitate-interbentziorako estrategia batek sentsibilizazio, prestakuntza eta antolaketarako epealdiak ezarri beharko lituzke, berdintasun hori bultzatu nahiz.

Inondik inora ez du agertu behar komunitatearen parte-hartzea, teknikarien protagonismoaren menpe edo berau pasibotzat jotzea, hau da, maila kontsultibo hutsean gelditzea.

Era berean, giza kolektiboez ari garenean ezin ditugu legeztatutako taldeak bakarrik onartu, zeren eta ez-ohizko taldeak ere garantzizkoak baitira interbentziorako.

Elkarte-erregistro batean agertzeak ez luke suposatu behar parte-hartzerako ezinbesteko baldintza, ezta kontrol sozialerako sistema ere.

EZTABAIDARAKO

Argi dago edozein prebentziorako ihardueran parte-hartzearen gaiak garrantzi handia duela.

Hala ere ez dirudi erraza epe laburrean nola bultza daitekeen Komunitatearen partaidetza hori, bere baliogarritasuna ikusten denean soilik

eragin ahal da eta. Altruismoz parte-hartzea zoragarria litzateke, baina parte hartzen duenak bere zentzua topatu behar dio, zeozertarako lagungarri izango dela, alegia, parte-hartzearen aldeko apustua benetazko aukerak ematen dituela suposatu beharko luke.

Eta horretarako bi osagarri behar dira: PRESIO SOZIALA ETA BORONDATE POLITIKOA

EKINTZEN ANIZTASUNA

FAMILIA-P

SENSIBILI

SALEROSK KO

DROGOMENPEKOTASUNA

INTERBENTZIOAK

KOMUNITATE-PREBENTZIOA

ZERGATIASKOKO GIZA-FENOMENOA

KALEA

ESKOLA

FAMILIA

GIZA KOMUNIKABIDE

ESKAINTZA

ESKARIA

JARRERAK

BALOREAK

EZAGUPENAK

JOKAERAK

EFIKAZIA = BEREGANATZEKO MAILA

ERREPRESIOA

SOROSPENA

GIZARTERATZEA

PREBENTZIOA

NONDIK

* POLITIKA OROKORRA
* NORMALTASUNA
* OSASUN KONTZEPTUA
  - Gaixotasuna baino arzago
  - Denon ardura
  - Guztion partaidetzaz
* BEREIZI GABEA
* ESPARRUTARTEKOA
* ERAKUNDETARTEKOA


ERAKUNDEAK
JAURLARITZA
FORU ALDUNDIAK
UDAL SAILAK
TEKNIKARIAK
ELKARTEAK
UDALERRIA
HEZKUNTZAKOAK
SANITARIOAK
KULTURALAK
PREBENTZIOKOAK
INGURUGIROKOAK
ESKAERAK
GIZARTEKOAK
EKINTZEN ANIZTASUNA
UDAL BATZORDEA ETA TEKNIKARI TALDEAK
KOMUNITATE DINAMIZAZIOA
OSASUNERAKO HEZKUNTZA
PRESTAKUNTZA-INFORMAZIOA
BALIABIDEAK
UDAL KOMUNITATE PREBENTZIOA
ESKOLA-PREBENTZIOA
PROFESIONALEN PRESTAKUNTZA
SOROSPENERAKO SAREA
FAMILIA-PREBENTZIOA
SENSIBILIZAZIOA
SALEROSKETAREN KONTROLA



Bide
erabilerak
Toxil
plagizide
guztietara
Heziketa
erabilgarr

BIDEO EMANALDIA: ***PESTIZIDEN ERABILERA***

RODRIGUEZ E., APAOLAZA A., CRUZAT J., DIAZ E., SALAZAR J.
(OSASUNERAKO HEZIKETA)

Bideo honen helburua, sustantzi plagiziden mugagabe edo era txarreko erabilerak duen arriskuaz nekazaria konzientziatzea da.

Toxikapenen bideak eta bere ondorioak aztertzen dira laburki. Sustantzi plagiziden erabilera egokia eta segurua izan dadin, prozesuaren etapa guztietarako kontutan hartu behar diren gomendioak berretzen dira. Osasun-Heziketako egitarauetan eta Aldundiekin elkar-laguntzan kanpainetan erabilgarria.